

BERRIA

Zamudion, 2023\10\24

BILBOKO INGENIERITZA ESKOLAREN BISITA KARAKATE ZENTRORA

- **Ikasleek telekomunikazio-zentro baten kudeaketa-lanak, emandako zerbitzuak eta erabilitako ekipamenduaren funtzionamendua ezagutu ahal izan dituzte.**
- **Bisita Itelazpik irakaskuntza arloan garatzen dituen konpromiso sozialeko ekintzen barruan kokatzen da.**

Joan den ostiralean, urriaren 20an, Karakate mendian (Soraluze, Gipuzkoa) dagoen telekomunikazio-instalazioak Bilboko Ingeniaritza Eskolako (UPV/EHU) ikasle talde baten bisita jaso zuen. Ikasle horiek Telekomunikazioen Ingeniaritzako Graduko 4. maila hasi dute aurtan.

Bisita, Ramiro Olivas komunikazio-arduradunak egin zuen, eta ikasleek instalaziotik emandako zerbitzu nagusiak eta erabilitako ekipamenduaren funtzionamendua ezagutzeko balio izan zuen: EITB Media erakunde publikoaren eta zenbait irratiribaturen LTDko eta FMko seinaleen hedapena, seinaleak ondoko zentroetara banatzea, TETRA komunikazio profesionalen zerbitzuaren estaldura eta merkataritza-operadoreen baterako kokapena, batez ere telefonia mugikorreko zerbitzua emateko.

Ikasleek, halaber, bezeroekin ditugun zerbitzu-mailako konpromisoak babesteko beharrezkoak diren kudeaketa- eta mantentze-lanak ezagutu ahal izan zituzten: prebentzio- eta zuzenketa-mantentze-lanak, gorabeheren arreta, 24x7 monitorizazioa, instalazioen egokitzapena, etab. Azalpena osatzeko, ingurumen-kudeaketako eta laneko segurtasun eta osasuneko ekintza nagusiak errepasatu zituzten, Itelazpirentzat bi gai horiek duten garrantzia azpimarratuz.

Bisiten programa Itelazpik irakaskuntzarekin duen konpromiso sozialaren barruan kokatzen da, eta helburu nagusia ikasleen garapen akademikoa osatzen duen ezagutza praktikoa zabaltzea eta lekualdatzea da. Programa, unibertsitate-eskolarekin ezarritako lankidetzak-hitzarmenari esker egituratzen da. LHren esparruan, Itelazpik Ikaslanekin ezarritako hitzarmen baten bidez bideratzen du programa hori.

Bisiten programari buruz edo nola parte hartu jakiteko, helbide elektroniko honetara idatzi dezakezu: komunikazioa@itelazpi.eus.

NOTICIA

En Zamudio, 26/10/2023

VISITA DE LA ESCUELA DE INGENIERÍA DE BILBAO AL CENTRO KARAKATE

- **El alumnado ha podido conocer las labores de gestión de un centro de telecomunicaciones, los servicios prestados y el funcionamiento del equipamiento utilizado.**
- **La visita se enmarca en las acciones de compromiso social que Itelazpi desarrolla en el ámbito docente.**

El pasado viernes 20 de octubre, la instalación de telecomunicaciones ubicada en el monte Karakate (Soraluze, Gipuzkoa) recibía la visita de un grupo de alumnas y alumnos de la Escuela de Ingeniería de Bilbao (UPV/EHU), que actualmente están iniciando el 4º curso de Grado en Ingeniería de Telecomunicaciones.

La visita, atendida por Ramiro Olivas, responsable de comunicación, sirvió para que el alumnado pudiera conocer los principales servicios prestados desde la instalación, y el funcionamiento del equipamiento empleado: difusión de señales de TDT y radio FM del ente público EitB Media y varias emisoras privadas, distribución de señales a centros adyacentes, cobertura del servicio de comunicaciones profesionales TETRA y co-ubicación de operadoras comerciales, principalmente para prestación del servicio de telefonía móvil.

El alumnado también pudo conocer las labores de gestión y mantenimiento necesarias para preservar los compromisos de nivel servicio que mantenemos con las entidades cliente: mantenimiento preventivo/correctivo, atención de incidencias, monitorización 24x7, adecuación de instalaciones, etc. La explicación se completó con el repaso de las principales acciones de gestión ambiental y seguridad y salud en el trabajo, remarcando la gran relevancia que tienen ambas materias para Itelazpi.

El programa de visitas se enmarca en el compromiso social que Itelazpi mantiene con el ámbito docente, teniendo como principal objetivo la divulgación y el traslado de conocimiento práctico, que complementa el desarrollo académico del alumnado. El programa se articula gracias al convenio de colaboración establecido con la escuela universitaria. En el ámbito de la FP, Itelazpi canaliza este programa a través de un convenio establecido con Ikaslan.

Para más información sobre el programa de visitas y cómo participar, puedes dirigirte a la siguiente dirección de correo electrónico: komunikazioa@itelazpi.eus.

HARREMANETARAKO DATUAK / DATOS DE CONTACTO

944032300
komunikazioa@itelazpi.eus